

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

5294

100/2022 EBAZPENA, azaroaren 28koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari emandako kudeaketa-gomendio honen bigarren aldaketa baimentzen baita: Lezo-Gaintxurizketako (Gipuzkoa) terminal Intermodal eta logistikoaren informazio-azterlana, Trenbide-eremuak mugatzeko eta erabiltzeko proiektua eta Trenbide-zerbitzuaren gunea antolatzeko Plan Berezia definitzeko azterlanak egitea onartzen duen Erabakia argitaratzea xedatzen duena.

Gobernu Kontseiluak, 2002ko uztailaren 26an egindako bilkuran, Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari emandako kudeaketa-gomendio honen bigarren aldaketa baimentzen baita: Lezo-Gaintxurizketako (Gipuzkoa) terminal Intermodal eta logistikoaren informazio-azterlana, Trenbide-eremuak mugatzeko eta erabiltzeko proiektua eta Trenbide-zerbitzuaren gunea antolatzeko Plan Berezia definitzeko azterlanak egitea onartzen duen Erabakia onartu zuen, eta behar bezalako publizitatea emateko, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari emandako kudeaketa-gomendio honen bigarren aldaketa baimentzen baita: Lezo-Gaintxurizketako (Gipuzkoa) terminal Intermodal eta logistikoaren informazio-azterlana, Trenbide-eremuak mugatzeko eta erabiltzeko proiektua eta Trenbide-zerbitzuaren gunea antolatzeko Plan Berezia definitzeko azterlanak egitea onartzen duen Erabakiaren testua. Ebazpen honen eranskinean dago jasota.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 28a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

ERANSKINA, AZAROAREN 28KO 100/2022 EBAZPENARENA, JAURLARITZAREN
IDAZKARITZAKO ETA LEGBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO
ZUZENDARIARENA

ERABAKIA, ZEINAREN BIDEZ ONARTZEN BAITA RED FERROVIARIA VASCA-EUSKAL
TRENBIDE SAREARI EMANDAKO KUDEAKETA-GOMENDIO HONEN BIGARREN
ALDAKETA BAIMENTZEN BAITA: LEZO-GAINTXURIZKETAKO (GIPIZKOA) TERMINAL
INTERMODAL ETA LOGISTIKOAREN INFORMAZIO-AZTERLANA, TRENBIDE-EREMUAK
MUGATZEKO ETA ERABILTZEKO PROIEKTUA ETA TRENBIDE-ZERBITZUAREN GUNEA
ANTOLATZEKO PLAN BEREZIA DEFINITZEKO AZTERLANAK EGITEA

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak eta Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioak lankidetzaproto-kolo bat sinatu zuten 2020ko urtarrilaren 22an, Lezo-Gaintxurizketako (Gipuzkoa) terminal intermodal eta logistikoa garatzeko behar den lankidetzaproto-kolo, eta terminal intermodal eta logistikoa garatzeko behar diren informazio-azterlana eta eraikuntzaproiektuak egiteko. Terminal hori jasota dago Estatuko eta autonomia-erkidegoko plangintzan, bai eta Europar Batasunaren 1315/2013 (EB) Erregelamenduan ere. Protokolo hori 2022ko urtarrilaren 22an luzatu da. Protokolo horren arabera, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, betiere Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioarekin koordinatuta, aipatutako terminal intermodal eta logistikoa horren informazio-azterlana eta eraikuntzaproiektuak definitzeko behar diren proiektuak eta azterlanak garatuko ditu, zeinek Interes Orokorreko Trenbide Sarrera konektatzea ere ahalbidetuko baitute.

Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen, eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 11. artikulua Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren esku uzten ditu trenbideen gaineko egitekoak.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuaren 16.2.a) eta e) artikuluek Garraio Azpiegituren Zuzendaritzari esleitzen dizkiote honako hauek, hurrenez hurren: batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eskumenekoak diren garraio-azpiegiturak garatu eta mantentzeko inbertsioak planifikatu eta programatzea, eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta gainerako lurralde-administrazioen arteko lankidetzarako eta koordinazio ekonomiko, tekniko eta administratiborako tresnak proposatu eta prestatzea garraio-azpiegituren arloan.

Maiatzaren 21eko 6/2004 Legearen bidez, Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea zuzenbide pribatuko ente publikoa sortu zen, eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari atxikita dago. Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea ente publikoaren eskumena zabaltzen da Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoak diren eta kudeaketa-gomendioan ematen zaizkion trenbide-azpiegitura guztietara (egungoak edo etorkizunean eraikiko direnak).

Gainera, Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarearen maiatzaren 21eko 6/2004 Legearen 5.4 artikulua arabera erakundearen helburuetan sartzen da, halaber, Jaurlaritzak agintzen dion eta, zuzenean edo zeharka, trenbide-garraioko azpiegiturak eraiki, zaindu eta administratzearekin zerikusia duen beste edozein eginkizun, eta, bereziki, hauek: azterlan eta proiektuak idaztearekin zerikusia duten eginkizunak, eta trenbide-garraioko politikari, telekomunikazio-zerbitzuei eta gune publikoen erabilerari loturik dauden azpiegituren kudeaketarekin zerikusia dutenak, edozein dela ere kudeaketa horretarako erabiltzen den negozio juridikoa, betiere zuzenbidean onartzen direnatakoa bada.

Aurretik xedatutakoa kontuan hartuta, Gobernu Kontseiluak 2020ko otsailaren 18an egindako bileran kudeaketa-gomendio hau eman zion Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari: Lezo-Gaintxurizketako (Gipuzkoa) terminal intermodal eta logistikoaren informazio-azterlana, trenbide-eremuak mugatzeko eta erabiltzeko proiektua –eta azken hori garatzen duen dokumentua– eta trenbide-zerbitzuen gunea antolatzeko plan berezia definitzeko azterlanak egitea. Hasieran esleitutako kredituak birbanatzeko eta jarduketan zenbatetsitako aurrekontu osoa egokitzeke, 2021eko maiatzaren 25ean, aipatutako gomendioa aldatzeko baimena eman zen.

2020ko otsailaren 18an onartutako eta 2021eko maiatzaren 25ean aldatutako gomendioaren laugarren apartatuan deskribatutako lanen aurrekontua seiehun eta laurogeita bederatzita mila hirurehun eta hogeita bat (689.321) eurokoa da, BEZa barne, honako urteko ordainketa hauekin:

- 2020 24.321 euro.
- 2021 444.000 euro.
- 2022 221.000 euro.

Euskal Trenbide Sareak lanen exekuzio-mailari dagokionez planteatu dituen jarraibideen araber, ezinbestekoa da hasieran aurreikusitako aurrekontu-banaketa moldatzea, eta hasieran zenbatetsitako aurrekontua egokitzea.

Ondorioz, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuak proposatuta, 2022ko uztailaren 26an egindako bilkuran, gaia eztabaidatu ondoren, Gobernu Kontseiluak erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Lehenengoa.– Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari 2020ko otsailaren 18an emandako eta 2021eko maiatzaren 25an aldatutako kudeaketa-gomendioaren 6. puntua aldatzea –lanen balorazioa eta ordainketa–. Kudeaketa-gomendioa lan hauek egiteko eman zitzaion: Lezo-Gaintxurizketako (Gipuzkoa) terminal intermodal eta logistikoaren informazio-azterlana, trenbide-eremuak mugatzeko eta erabiltzeko proiektua –eta azken hori garatzen duen dokumentua– eta trenbide-zerbitzuaren gunea antolatzeko plan berezia definitzeko beharrezkoak diren azterlanak egitea.

Bigarrena.– Kudeaketa-gomendio hori burutzeko baldintza zehatzak erabaki honen eranskinan daude jasota.

Hirugarrena.– Kudeaketa-gomendio hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

ERANSKINA

6.– Lanen balorazioa eta ordainketa.

Seiehun eta hogeita bost mila laurehun eta berrogeita hamazazpi euro eta laurogeita hamar zentimo da (625.457,90), BEZa barne, gomendioan emandako lanen balorazioa, urteko ordainketa hauen arabera:

- 2020 24.321,00 euro.
- 2021 86.136,90 euro.
- 2022 515.000,00 euro.

Enkargu honen ondorioz egiten diren lanak hileroko ordainduko dira, egindako lanak justifikatu ondoren betiere. Horretarako, kasuan kasuko faktura aurkeztu beharko zaio Administrazioari.